IKAZTEGIETAKO UDALA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.

78-2025 ESPEDIENTEA

IKAZTEGIETAKO UDALERRIAN GIZARTE NAHIZ HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ETA PREBENTZIO KOMUNITARIOA EGITEKO 1.3 ZERBITZUA GARATU ETA GAUZATZEKO HELBURUA DUEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA.

LIZITAZIOAREN EZAUGARRIAK		
Xedea	**IKAZTEGKIETAKO UDALERRIAN GIZARTE NAHIZ HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ETA PREBENTZIO KOMUNITARIOA EGITEKO 1.3 ZERBITZUA GARATU ETA GAUZATZEKO HELBURUA DUEN** ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ.	
Gehienezko gastua		
Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua		**41.348,63€ (BEZik gabe)**
Kontratuaren balio zenbatetsia		**124.045,90 €**
Kontratuaren iraupena	1 urteko iraupena + 2 urteko balizko luzapenak (1+1)	
Kontratatzeko prozedura	**Prozedura irekia/** Procedimiento abierto	
Prezioak berrikustea	**Ez**	
Behin betiko bermea	Esleipen zenbatekoaren %5ekoa, BEZ kanpo	

BOTERE ESLEITZAILEA (ERAKUNDE KONTRATATZAILEA) ETA BERE ORGANOAK
Erakundea: Ikaztegietako Udaletxea
Organo kontratazailea: Udalbatza
Zuzendaritza edo zerbitzu sustatzailea: GIZARTE ZERBITZUAK Kontratuaren arduraduna: Gizarte zerbitzuetako teknikaria. Helbide elektronikoa: udala@ikaztegieta.eus

IKAZTEGIETAKO UDALERRIETAN PREBENTZIO KOMUNITARIOA EGITEKO ETA GIZARTE NAHIZ HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO ETA ARRETA PSIKOSOZIALA ESKAINTZEKO PROGRAMA GARATU ETA GAUZATZEKO HELBURUA DUEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA.

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da, Ikaztegietako udalerriko Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua garatzea, tokiko entitateko oinarrizko Gizarte Zerbitzu Departamentuko irizpide, ikuskapen eta koordinaziopean, preskripzio teknikoen agirian xedatutako baldintzen arabera.

Agiri honen arabera aurrera eramango den kontratua administratiboa da. Europear Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 17. artikuluarekin bat etorriz, hemen zehaztu den kontratua zerbitzu kontratu gisa dago kalifikatuta.

Loteetan ez zatikatzea. Halaber, espedientean jasota dago Gizarte Zerbitzuen Sailaren txostena, kontratua lotetan ez zatitzea justifikatzen duena, SPKLaren 99 artikuluak dioena jarraiki.

Kontratuaren kodifikazioa CPV:
85320000-8 – Gizarte zerbitzuak

2. Kontratu beharraren justifikazioa

Espedientean jasota dago zer arrazoirengatik egingo duten tokiko entitate hauek agiri honen xede den kontratua.

3. Aldaerak edo aldaketak

Ez dira onartzen.

4. Kontratuaren iraupena

Zerbitzua emateko epea, guztira, URTE BETEKOA izango da 2025eko kontratua sinatzen denetik hasita. Kontratua luzatu ahal izango da, urtebeteko aldiez. Nolanahi ere kontratuak, guztira, luzapenak barne, ezin izango du 3 urte baino gehiago iraun.

Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatzea edo ez, eta derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraunaldia bukatu baino bi hilabete lehenago jakinarazten badu.

5. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen arabera, kontratu honen xede den zerbitzua 20.1.8. artikuluan jasotako salbuespen-kasu bat da, edo % 10eko tasa murriztua aplikatu behar zaion zerbitzu bat, 91. bat, 2, 7. artikuluaren arabera.

Beraz, aurreko paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta:

1- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 41.348,63€ izango da (BEZa kanpo)

Kalkulu horretan balorazio-faktore guztiak eta kontratua burutzeko eratorritako gastuak sartu dira, kontratu-agiri eta indarrean dagoen araudiaren arabera, esleipendunaren kargura baitira. Horrez gain, kontzeptu guztien gaineko edozein zergari dagokion kuota barne dagoela ulertuko da eta, bereziki, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, bere araudiaren arabera.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren urte bakoitzerako, kostuen eranskinean jasotzen den bezala banakatzen da. **II eranskina.**

Zuzeneko gastuak kalkulatzeko kontutan hartu dira oinarrizko ordainsariak eta osagarriak, espezietan egindakoak hala badagokio, eta Gizarte Segurantza enpresaren kontura, Gipuzkoako Esku Hartze Sozialerako Hitzarmen Kolektiboaren, bai eta kontratuak iraun bitartean izan daitezkeen soldata-hobekuntzen zenbatespena ere. Gainera, zenbatekoak handitu egin dira lizitatzaileak tarte bat izan dezan, bai soldata-baldintzetan gerta daitezkeen gorabeherak edo hobekuntzak egiteko, bai lizitazio-prezioa hobetu ahal izateko.

2. Nolanahi ere, lizitatzaileek prezio hau baino apalagoa eskaini ahal izango dute, horrela, Entitateak ez du inolaz ere ordainduko aurreko atalean finkatutako prezioak sortutakoa edo esleipena jaso duenak aurkezten duen eskaintzan zehaztutakoa baino kopuru handiagorik.

4. Baldintza honetan adierazitakoak gehienezko prezioak dira, beraz, ez da onartuko horiek gainditzen dituen proposamenik. Kasu horretan, proposamen horiek automatikoki lizitaziotik kanpo geratuko dira.

   Kontratuaren prezioa esleipenarena izango da eta inolaz ere ez du lizitazioko oinarrizko aurrekontua gaindituko.

5. Kontratuaren balore balioetsia, 118.605,21€koa da.

6. Erakundeak BEZik ez badu, behar bezala justifikatu behako du eta zenbateko hori ez da eskaintzan barneratuko.

6. Finantzatzea

Kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo Ikaztegietako Udaleko aurrekontuaren kontura finantzatzea aurreikusita dago. Horrez gain, aurrekontuen gaian eskumena duen organoak hitz ematen du dagozkion kredituak gordeko dituela programa honen eragina jasango duten etorkizuneko aurrekontuetan.

7. Prezioak berraztertzea

Kontatu honetan, ez dira berrikusi behar prezioak, SPKLaren 103.1 artikuluari jarraituz.

8. Ordainketa-araubidea

1. Kontratuaren prezioa enpresak dagokion faktura aurkeztu eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak bete ondoren ordainduko da.

   Lizitatzaileak hilabetero faktura bana aurkeztuko du Ikaztegietako Udaletxeari

   SPKLaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriari jarraiki, **Ikazkegietako Udalera** formatu elektronikoan bidali beharko dituzte beren fakturak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorra erabiliz:
   (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua).

   Ikaztegietako Udala Puntu Orokorrari atxikitako erakundea izanik, honakoak dira DIR3 kodigoak:

   1. Kontabilitateko Bulegoa : L01200441
   2. Organo kudeatzailea: L01200441
   3. Unitate tramitatzailea: L01200441

2. Faktura horietatik, aldez aurretik kontratistari entzunez, egin gabeko edo bukatu gabeko kontratazioaren xedeko lanei edota ezar litezkeen zigorrei dagozkien kopuruak kenduko dira.

3. Esleipena jaso duenak ez du eskubiderik izango bere borondatez egindako berrikuntza edo hobekuntzen ordainketa jasotzeko, nahiz horiek Administrazioarentzako onuragarriak izan.

4. Era berean, ez da onartuko aurrekontuan jasota ez dagoen lanik, baldin eta kontratazio organoak legeak ezarritako eskakizunak betez aldez aurretik onartu ez baditu.

5. Esleipena jaso duenak inolaz ere ez du eskubiderik izango aurreko paragrafoetan xedatutakoa hautsiz egindako lanak kobratzeko.

9. Bermeak

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 19. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLaren 108. Artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, ebazpen berri bat hartu beharrik gabe, zerbitzu teknikoen aldeko txostena egiten dutenean, beti ere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legearen 111 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

II. KONTRATUAREN PROZEDURA

10. Prozedura eta esleitzeko modua

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, SPKLaren 156 eta hurrengo artikuluak jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

11. Lizitazio elektronikoa

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikok Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren, mankomunitatearen eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da. Kontratua esleitzeko esleipen-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezioa erlazio onenean oinarrituta.

12. Kontratatzeko prozeduran jakinarazpenak egiteko erabili ahalko diren komunikazio-bideak

SPKLaren 140.1.4. artikuluan eta 15. xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki, kontratatzeko prozedura honi lotutako komunikazio eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egingo dira (horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez), lizitatzaileak erantzukizunpeko aitorpenean adierazitako helbide elektronikoan.
Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuko dira.

13. Kontratatzeko gaitasuna

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLaren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduko behar dute.

Lizitatzaileek, gainera, hitzarmen honen xedearekin harreman zuzena duten jarduerak egiteko helburua izan beharko dute eta hura behar bezala burutzeko adinako giza- eta material-baliabideez hornitutako antolamendua ere.

14. Enpresen sailkapena eta kaudimena

Kaudimena egiaztatu daiteke enpresaren sailkapenaren bidez (nahiz eta prozedura honetarako ez den betekizun bat) edo kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoaren bidez.

<u>Sailkapena</u>

Kontratuaren xedea indarrean den urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren zenbait manu aldatzen dituen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuaren. sailkapeneko talde edo azpitalderen baten sailkapen-eremuan sartzen ez denez, ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren gutxieneko irizpideak eta betekizunak baino ez dira ezartzen, SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

<u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa</u>

Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioaren behin eta erdi izan beharko da gutxienez, hau da, 600.000€ baino gutxiagoko zenbatekoa.

Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuen bidez. Merkataritzako Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

Enpresa sortu berriei dagokienez, SPKLk ez du araudi berezirik ezartzen enpresa sortu berriek kaudimena egiaztatzeko, ekonomia- eta finantza-kaudimenari dagokionez, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak, 1206/2018 Ebazpenaren bidez, honako hau interpretatu zuen: *"... nahikoa da gogoratzea gure ordenamenduak (87.1.b artikulua), Auzitegi honek kontratazioaren arloan eta Kontratazioaren Aholku Batzordeak interpretatuta (besteak beste, aurtengo otsailaren 28ko gomendioan adierazitakoaren arabera), enpresa sortu berriek lizitazioetan parte hartu ahal izango dutela erantzukizun zibileko aseguru bat aurkeztuz, arrisku*

profesionalengatik edo kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko handiagoagatik, eta aurrekoa izateko arrazoia lizitatzaileen arteko lehia eta lehia askea babestea besterik ez da.

Kaudimen teknikoa edo profesionala:

a) Kontratuaren xedearen izaera bera edo antzekoa duten eta gehienez ere azken hiru urteetan egin diren zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita; gaitasun-maila egokia bermatzeko beharrezkoa denean, botere esleitzaileek adierazi ahal izango dute hiru baino gehiago egindako zerbitzuen probak hartuko direla kontuan

   Kaudimen tekniko hori egiaztatzeko, gutxieneko baldintza izango da hiru lan eginda izan beharko ditu.

   Egiaztatutako lanak eta kontratuaren xedea osatzen dutenak bat datozen zehazteko, sailkapen aplikagarria dagoenean, dagokion sailkapen-taldea eta -azpitaldea hartuko dira kontuan, eta, gainerako kasuetan, CPV kodeetako edozein bat datorrenean.

   Emandako zerbitzuak eta egindako lanak ziurtagirien bidez egiaztatuko dira. Ikaztegietako udalerrian egindako zerbitzuak edo lanak badira, ofizioz egiaztatuko dira.

b) Kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen enpresaburuak.

Beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein izanda ere, baldin eta frogatzen badu kontratuak irauten duen bitartean kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela. Baldintza berberetan, aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren enpresaburuek aldi baterako elkartearekin zerikusirik ez duten erakundeen gaitasunak baliatu ahal izango dituzte.

Horretarako, beste erakunde batzuen gaitasunak baliatu nahi dituen enpresak beharrezko baliabideak izango dituela frogatuko du, horretarako erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuz. Konpromiso hori eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztuko du, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, horretarako errekerimendua egin ondoren.

Kontratua gauzatzeko behar adina giza baliabide edo baliabide material
Kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak eskaini edo atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko da. Konpromiso hori funtsezko betebeharra izango da kontratua suntsiarazteko edo ez-betetze partzialagatik edo gaizki betetzeagatik zigorrak ezartzeko arrazoitzat hartzeko.

Gainera, kaudimen teknikoa egiaztatzeko orduan, esku-hartze programa garatzeko profesionalen kontratazioa arautzen duen baldintza teknikoen **Agiriko 5.2 baldintzan zehazten dena bete beharko da.**

15. Esleipen-irizpideak

Aurkeztutako eskaerak baloratzerakoan kontuan hartuko diren irizpideak, hauexek izango dira:

Automatikoki ebaluatzen ez diren irizpideak (balio-judizioak): 49 puntu.
- Memoria teknikoa edo proiektua: 46 puntu
- Proposatutako hobekuntzak: 3 puntu

Automatikoki ebaluatzen diren irizpideak (formula): 51 puntu

- Prestakuntza-ekintzak: 12 puntu
- Lan eskarmentua: 15 puntu
- Programa gauzatzeko materiala: 10 puntu
- Proposamen ekonomikoa: 14 puntu

Irizpide horietatik, honako hauek dira balio-iritzi baten araberakoak, eta automatikoki zenbatestekoak baino lehenago balioetsiko dira:

A. AUTOMATIKOKI EBALUATZEN EZ DIREN IRIZPIDEAK (BALIO-JUDIZIOAK): 49 PUNTU.

a) Proposamenaren balio teknikoa. Gehienez 46 puntu.

Erakunde lizitatzaileak garatuko nahi duten lan-plangintzaren proiektu teknikoa aurkeztu beharko dute.

Ez dira onartuko alde bakar batetik 25 orrialde baino gehiagoko proiektu teknikoak. Eranskinak eta edozein motatako dokumentazio osagarria ez dira zenbatuko proiektuaren zati gisa, baina ezingo dira 10 orrialde (alde batetik) baino gehiagokoak izan.

Puntuatzeko orduan kontuan hartuko da:

Proposamen hoberena balioetsitako esleipendun enpresak, proposamen teknikoa, Gizarte Zerbitzu Departamentuko profesional taldeak zehaztutako antolakuntza, helburu eta zerbitzuei egoki beharko du.

b) Proposatutako hobekuntzak. Gehienez 3 puntu

Balorazio globalean onartuak izateko, eskatuko da formulen bidez zenbatu ezin diren irizpideetan lizitatzaileek gutxienez puntuazioaren% 50eko atalasea lortzea balio-judizioaren mende dauden irizpideen multzoan, kontratazio-mahaiak kontuan hartzen ez baditu honako puntuazio hau lortzen ez duten eskaintzak: 24 puntu.

Kontratazio Mahaiak egingo du balorazioa. Horretarako behar dituen txosten teknikoak eska ditzake, SPKLaren 146.1b) artikuluan xedatutakoaren arabera (150.1. eta 157.5 artikuluak).

Balio judizio baten araberako balioespen irizpideei dagokion dokumentazioa **"B" kartazalaren barruan sartuko da**.

Inola ere ez du jaso beharko eskaintza ekonomikoaren dokumentu garrantzitsurik, ezta formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko alderdirik ere. Lizitazioan sartzea lizitaziotik kanpo uzteko arrazoia izan daiteke.

B. AUTOMATIKOKI EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK (FORMULA): 51 PUNTU

Honako hauek dira automatikoki zenbatesteko irizpideak eta haiek balioesteko erabiliko diren formulak:

a) Prestakuntza-ekintzak: 12 puntu

Irizpidearen haztapena: Irizpidea 10 punturen gainean ebaluatuko da eta lizitatzaileek eskainitako prestakuntza-ekintzen arabera banatuko da. Jarraian, puntuazio-eskala aurkezten da:

- 3 orduko prestakuntza: 1 puntu
- 6 orduko prestakuntza: 2 puntu
- 9 orduko prestakuntza: 2,5 puntu

- Proposatutako prestakuntza bakoitzari puntu 1 gehituko zaio baldin eta gai hauetakoren batekin zerikusia badu:
  - Berdintasuna.
  - Gizarteratzea edo gizarte-bazterketa.
  - Adingabeak: arrisku eta babesgabetasun egoerak.
  - Prebentzio komunitarioa
  - 1.3 Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren garapenerako eredua.

b) Gizarte zerbitzuetan lan egin izanaren eskarmetu gehigarria, 1.000 biztaleriatik beherako udalerrietan: 15 puntu

Irizpidearen haztapena: Irizpidea 15 punturen gainean ebaluatuko da gehienez, eta urte eta/edo hilabete osoen arabera banatuko da, modu proportzionalean. 5 puntu urte bakoitzeko.

c) Esku-hartzea gauzatzeko materiala: 10 puntu.

Irizpidearen haztapena: irizpidea 10 punturen gainean ebaluatuko da, eta lizitatzaileek esku-hartzea gauzatzeko eskainitako bitartekoen arabera banatuko da:

Jarraian, puntuazio eskala aurkezten da

Esku-hartze plana gauzatzeko materiala, gehienez 10 puntu. Esku hartzeko planari lotutako materialari edo jarduerei lotutako urteko gastu-partida (liburuak, material didaktikoa, aisialdiko edo denbora libreko jarduerak, etab., esku hartzeko helburuekin lotutakoak):

- Zenbatekoa 300 €-tik 500 €-ra bitartekoa bada: 2 puntu.
- Zenbatekoa 501 €-tik 700 €-ra bitartekoa bada: 4 puntu.
- Zenbatekoa 701 €-tik 800 €-ra bitartekoa bada: 6 puntu.
- Zenbatekoa 801 €-tik 1000 €-ra bitartekoa bada: 8 puntu.
- Zenbatekoa 1001 €-tik gorakoa bada: 10 puntu

c) Proposamen ekonomia. 14 puntu.

Balorazioa honela egingo da: preziorik merkeenari puntuaziorik altuena emango zaio; gainerako eskaintzen puntuazioa, berriz, prezio baxuenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaion puntu kopuru osoarekin biderkatzearen formulatik ondorioztatzen da. Hau da,

PI = (Ob/OI) x 14

Non:
PI: Lizitatzailearen puntuazioa
Ob: Eskaintzarik baxuena
OI: Eskaintza lizitatzailea

Eskaintzak balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituela ulertuko da, SPKLren 149. artikuluan eta 85 1098/2001 ED

Automatikoki antzemandako irizpideei dagokion dokumentazioa **"C" kartazalaren barruan sartuko da**.

Kontratazio-mahaiak uste badu lizitatzaileek egindako kalkuluen arabera eskaintzak langileen soldata- eta lan-baldintzak jaistea dakarrela dagokion hitzarmenaren arabera, eskaintza horri uko egin ahal izango dio.

16. Kontratazio Mahaia

Kontratazio-mahaiak kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:
Lehendakaria: Alkatea (Alba Garmendia Castaños)

Kideak:
Lehen bokala: Idazkari-kontu hartzailea (Jose Mari Saiz Pagoaga)
Bigarren bokala: Karrerazko funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)
Hirugarren bokala: Udal langilea (Agurtzane Lopetegi Etxeberria)

Mahaiko idazkaria:
Idazkaria: Karrerazko funtzionarioa (Idoia Albisu Barandiaran)

17. Proposamenak aurkezteko epea eta ezaugarriak, eta klausula-agiriak eskuratzeko bidea

Kontratuaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa Ikaztegietako Udaletxeko Euskadiko kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, **15 egun naturaleko epean**, aipatu lizitazio-iragarki hori Kontratatzailearen Profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita, epearen azken eguneko 14:00ak baino lehen.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu. Halaber, ezingo du beste lizitatzaile batzuekin batera aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Euskara edo gazteleran ez den beste hizkuntzaren batetan idatzitako agiri originalei, horietako hizkuntzaren baterako itzulpen ofiziala erantsiko zaie.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak

gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Ezingo da informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

18. Proposamenak aurkezteko modua

1. Lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO elektroniko** aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA, - GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) **Posta elektronikoko helbide gaitua**.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) **Erantzukizunpeko adierazpena.**

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 13. eta 14. Klausuletan.

Kontratazio-agiri europar bakarraren inprimakiaren araberakoa izango da adierazpena.

c) **Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE)** aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e) Sexu-izaerako delituen Erregistroa.
Adingabeekin harremana izango duten langileei dagokienez, ezinbestekoa izango da langile horiek sexu-izaerako delituen erregistroan sartu ez direla egiaztatzen duen ziurtagiria sartzea; ziurtagiri hori eguneratu egin beharko da, eta lizitazio hau kontratatzailearen profilean argitaratu ondorengo data izan beharko du.

Langile horiek plantillan ez badaude, esleitu ondoren aurkeztu beharko du agiri hori, betiere zerbitzua ematen hasteko erakundeak izanik.

f) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende dagoela adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.

2. «B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK, KUANTIFIKAZIOA BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DUTENAK

Agiri honen 15. klausulan adierazitako balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira gutun-azal honetan:

3. «C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA. - AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK, FORMULAK ERABILTZEAREN ARABERAKOAK

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) **Proposamen ekonomikoa, I. eranskineko ereduaren araberakoa**.

Proposamen ekonomikoak eskaintzaren tipo ekonomiko bakarra adieraziko du; nolanahi ere, Agiri honen 5. klausulan ezarritako aurrekontuaren berdina edo txikiagoa izan beharko du.

Lizitatzaileak egiten duen proposamenean adierazitako lizitazio motan, eta kontratua esleitzen den kopuru zehaztuan, ondorio guztietarako kontzeptu ezberdinak grabatzen dituzten zergei dagozkien kuotak barne daudela ulertuko da beti, bereziki Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta erregimen lokalari buruzko legediak xedatutakoak, baita indarreko legediak aurreikusten dituen guztiak ere. Ondorioz, ezin izango dira diru kopuru independente moduan adierazi eta beti obra esleipendunaren kargura eta kontura joango dira. Era berean, lizitazio-motaren barne ulertuko dira onura industrialari eta gastu orokorrei dagozkien kopuruak. Eskaintzan agertu behar da, xehaturik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta adieraziko da kontratuari aplikatu dakizkiokeen oinarria eta zenbatekoa, hura erregulatzen duen araudiaren arabera. Eskaintza xehaturik ez badago, kanpoan utziko da.

BEZa ordaintzetik salbuetsita dauden enpresa lehiatzaileek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute zerga horrekiko egoera horretan daudela adierazteko.

Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

b) Klausula-agiri honetako 15.B klausulan adierazitako automatikoki zenbatestekoak diren gainerako irizpideei buruzkoak.

19. Aurkeztutako agiriak ireki eta prozesatzea; enpresak aukeratzea, eta eskaintzak balioestea

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1. «A» eta «B» ARTXIBO ELEKTRONIKOAK IREKI

Mahaiak «A» gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta hartan sartutako dokumentazioa kalifikatuko du.

Zuzenketa-izapidea:
Mahaiak bestelako akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentu aurkeztuan, alde interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko (art. 141 SPKL).

Argibideen izapidea:
Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileari, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera SPKLren 95. artikulua eta APKLEOren 22. Artikulua).

Interesdunekin komunikatzeko, jakinarazpen elektronikoak erabiliko dira.

Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi berean, kuantifika ezin daitezkeen irizpideei buruzko “B” gutun-azala irekiko du, eta automatikoki bertan dagoen dokumentazioa entregatuko zaio ebaluatuko duen organoari.

2. «C» GUTUN-AZALA IREKI

«B» gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintza ekonomikoak «C» gutun-azala ireki eta irakurriko ditu. Kontratazio-organoak, behar den aurrerapenarekin, Ikaztegietako Udaletxeko kontratatzaile profilean argitaratuko du noiz egingo den eskaintza ekonomikoak irekitzeko eta irakurtzeko egintza eta, deialdian horrela azaltzen bada, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

Lizitazioan bitarteko elektroikoak erabiltzea aurreikusten denez, ez da beharrezkoa izango eskaintza ekonomikoa ekitaldi publikoan irekitzea.

Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari.

3. NABARMENKI BAXUEGITZAT JOTZEKO MODUKO ESKAINTZAK

SPKLren 149. artikuluan eta 1098/2001 EDaren 85 artikuluan xedatutakoaren arabera, nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat identifikatuz gero, eskaintza nabarmenki baxuegitzat jotzeko, aldez aurretik, entzun egin behar zaio eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari (edo lizitatzaileei), eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa eman beharko du.

Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, administrazioaren nahierara betetzeko gaitasuna dutela irizten zaien proposamenetatik ekonomikoki onuragarrien denari adjudikatzea erabakiko du kontratazio-organoak.

Kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete balio nabarmenki baxuegiak izateagatik, sailkapenetik baztertuko du, eta eskaintzarik onenari adjudikatzea erabakiko du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

4. ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Segidan, hala dagokionean, eskatutako txostenak egin eta gero eta irizpide guztiak balioetsi ondoren, Kontratazio-Mahaiak kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN

Kontratazio-organoak proposamena onartu ondoren, dagokien zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote, SPKLko 145. Artikuluari jarraituz, erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa (SPKLko 141. artikuluko baldintzak) egiaztatzeko agiriak aurkeztea. Lizitatzaileak hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriak, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe bera izango du, plegu honetako 26 klausulan adierazitako polizaren harpidetza aurkezteko, eta, hala badagokio, sexu-izaerako delituen erregistroan ez inskribatzearen ziurtagiria, baldintza-agiri honen 18. klausulan adierazia.

Ziurtagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioaren akatsak konpon badaitezke, hiru egun naturaleko epea emango da zuzentzeko. Hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Udaleko kontratatzailearen profilean ere iragarriko da.

20. Adjudikazioa eta formalizatzea

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileari adjudikazioa ematea ebatziko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta Euskadiko kontratazioko plataforman dagoen erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratu horri kontratazio-arloko errekurtso berezia jar dakioke, SPKLren 44.1 artikuluaren arabera. Adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen ezin izango da formalizatu, eta epe horretan jarri ahal izango da errekurtsoa. Kontratazio-arloko errekurtsoa jarriz gero, kontratazio-prozeduraren izapidetzea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte. Errekurtsoa aipatutako legearen 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera garatuko da.

Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

21. Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egitea

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.

III. KONTRATUA BURUTZEA

22. Kontratuaren arduraduna

Kontratazioko organoek, udal teknikari bat izendatuko dute, eta kontratua gauzatzeaz arduratzeko, SPKLaren 62. artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

23. Kontratua burutzea

1. Kontratua kontratistaren kontura bete beharko da (SPKL 197 art).

2. Agiri honetan jasotzen diren baldintzei, Agiri teknikoari, esleipendunak bere eskaintzan egiten duen proposamenari, sinatutako kontratuari eta espedienteari erantsitako espezifikazio teknikoei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Mankomunitateak kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

3. Kontratistak bere langile propioekin eman beharko du zerbitzua eta horiek, kontratuaren helburua betetzeko beharrezko titulazioa izan beharko dute.

4. Kontratistak hitzartutako kalitatearekin eta maiztasunarekin eman beharko du zerbitzua bai eta kontratatu den zerbitzua eman edozein dela erakunde esleipendunaren barne eta kanpoko egoera, adibidez, lan arazoak eta zerbitzuaren jarduera normalean eragina izan dezakeen beste edonolako egoera.

5. Kontratista, burutzen dituen lanen, prestazioen eta eskainitako zerbitzuen arduradun izango da, baita administrazioarentzako edo hirugarrenen-tzako kontratua modu desegokian gauzatzearena, egon litezkeen akatsengatik edo erabilitako metodo desegokiengatik eratorritako ondorioen arduradun izanik. Ardura ez zaio berari egotziko antzemandako bizioak administrazioaren agindu zuzen baten edo hark ezarritako baldintzatatik ondoriotutakoak direnean.

6. Enpresa esleipendunak, kontratatutako zerbitzuei buruz ezagut ditzakeen datu guztiak isilpekoak direla ulertzen da, eta horien identitatea eta sekretua gorde beharko ditu. Sekretu profesionalaren betebeharra hausteagatik sortutako kalte-galerengatik eragindako pertsonei, Udalari eta Mankomunitateari kalte-ordain bat ordaindu beharko dio esleipendunak.
   Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko gerta daitezkeen izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuen erabilpena izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta gaiari buruzko gainontzeko araudiak xedatzen dutenari jarraiki gauzatuko du.

   Enpresa esleipendunak ezin izango ditu kontratuagatik lortzen dituen izaera pertsonaleko datu automatizatuak aplikatu edo erabili kontratuan bertan jasotzen diren helburuetarako ez bada; halaber, ezin izango dio inori utzi, gordetzeko bakarrik bada ere.

   Kontratuaren emakida bete ondoren, erabili diren izaera pertsonaleko datuak Mankomunitateari eta Udalari eman beharko zaizkio. Enpresa esleipendunak bereak suntsitu egin beharko ditu, ez bada behintzat Udalaren baimen idatzia jasotzen, etorkizunean egin ditzakeen zerbitzuak kontuan hartuz. Kasu horretan, dagozkion segurtasun neurriekin, bost urtez jaso ahal izango dira.

7. Esleipendunak, kontratua egoki garatu eta bete dadin beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, laneko bileratara edo informazio-bileratara joan, eta horrek ez dio ordainketa osagarri bat jasotzeko inolako eskubiderik emango. Betebehar hori bermerako epea amaitzen den arte mantenduko da.

8. Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratiboak lortzea, beti esleipendunaren kontura joango da, eta hark bere izenean eskatu beharko ditu.

9. Udalak, kontratu-emakidaren nahikoa jarraipen lortzearren, enpresa esleipendunaren arduradunekin koordinazioko bilerak eduki ahal izango ditu egindako lanaren garapena ezagutzeko.

10. Esleipendunak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua bete beharrekoa izango du. Harek, besteen artean, edozein modutako bereizketa, zuzena edo zeharkakoa.

11. Esleipenaren xedea den prestazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz ofizialetan emango dela bermatuko du, udalerrietan indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko planean jasota dauden irizpideen arabera, eta baita kontratu honi dagozkion baldintza teknikoen agirian jasotakoen arabera ere.

    Era berean eta irizpide horiek jarraituz, euskararen erabilera bermatu beharko du herritarrei zuzendutako inprimaki, ohar edo jakinarazpenetan.

12. Esleipendunak instalazioaren autobabesa plana ezagutu eta bete behar du. Horretarako, Mankomunitateak dokumentua emango dio.

13. Esleipendunak indarrean dagoen eta aplikagarria zaion araudia errespetatu behar du eta, bereziki, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan etxe eta merkataritza hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantza Orokorra (161 zk. GAO, 2013ko abuztuaren 26koa). Erakunde esleitzaileak kontratua betetzerakoan sortutako hondakinak kudeatuko ditu eta kudeaketa zuzena egiteaz arduratuko da. Aipatutako hondakin horiek Tolosaldeko Mankomunitateak horiek biltzeko zehaztu dituen egun, ordu, modu eta lekuan utziko dira.

24. Kontratistaren lan-eginkizunak

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

1) LANGILEEN SUBROGAZIOA

Enpresa kontratistak subrogatu eta xurgatu egin beharko ditu zerbitzuari atxikitako aurreko esleipenduneko besteren konturako langileak, esleipen-kontratuaren indarraldiaren lehen egunetik aurrera.

Aurreko esleipendunaren laneko eta Gizarte Segurantzako eskubide eta betebehar guztiak errespetatu beharko ditu, pentsioen konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitako baldintzetan, eta, oro har, aurreko esleipendunak gizarte-babes osagarriaren arloan hartutako betebehar guztiak.

Zehazki, subrogazio-taulan agertzen diren langileen laneko eta gizarte-segurantzako eskubide eta betebehar guztiak errespetatuko ditu, bertan aipatzen diren antzinatasun eta kategoriekin; hori guztia lanaldiaren iraupena edo kontratuaren izaera, gizarte-segurantzaren araubidea eta egoera edozein dela ere (amatasuna, aldi baterako ezintasuna, eszedentzia, oporrak, etab.).

Subrogazioaren unean enpresa esleipendunari aplikatzen zaizkion lan-baldintzak (oporraldiak barne) eta hitzarmen kolektiboa errespetatu beharko ditu.

Ikaztegietako Udalak ez du inolako harreman juridikorik, laboralik edo bestelakorik izango esleipendun gertatzen den enpresako langileekin, ez kontratu honek irauten duen bitartean, ez kontratua amaitu ondoren. Beraz, esleipendunaren kontura izango dira betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

2) Enpresa kontratistak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta osasunaren arloan eta ingurumena babestearen arloan aplikatzekoak diren indarreko legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, bai eta agiri hauetan ezartzen direnak ere.

3) Enpresa kontratistak enpresa kontratistaren jarduera kokatzen den sektoreko eremu txikieneko sektoreko azken hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak aplikatuko dizkie kontratua gauzatuko duten langileei, hargatik eragotzi gabe indarrean dauden eta hitzarmenean xedatutakoa hobetzen duten beste enpresa-hitzarmen edo itun batzuk.

4) Kontratua gauzatzeko aldi osoan, enpresa kontratistak nahitaez eutsi behar die kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzei, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera, eta ez ditu baldintza horiek okertuko, nahiz eta gero hitzarmen horrek indarraldia gal dezakeen, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeari buruzko legezko edo hitzarmenezko aurreikuspenak aplikatuta. Betebeharra betetzat joko da indarrean dauden lan-baldintzek indarrean jarraitzen badute indarraldia galdu aurreko unean. Nolanahi ere, lan-baldintzei eusteko betebeharra betetzat joko da, baldin eta baldintza horiek aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren artean lortutako akordioaren bidez, baina soldata-baldintzak ezin dira inola ere izan aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak. Kontratistak alderdi hori egiaztatzeko eskatzen zaion edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dio kontratazio-organoari.

5) Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du. Horretarako, kontratu horri atxikitako langileei esleitu ondoren benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz behar den informazio guztia eman beharko du.

6) Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jotzen dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

7) Atxikitako langileen lan-baldintzak aldatzen badira eta esleipenaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoei eragiten badiete, aldez aurretik horren berri eman beharko zaio kontratazio-organoari. Jakinarazpenak negoziazioaren justifikazio-dokumentazioa jaso beharko du, bai eta lan-baldintza berrien edukia eta horiek kontratuaren kostuen egituran izango duten berehalako eta etorkizuneko ondorio ekonomikoa ere.

8) Kontratistak bere patroi izaerari datxezkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta Lan Legeriaren, Gizarte Segurantzaren, Hitzarmen Kolektiboen eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak betetzera behartuta egongo da, bai eta tributuen arloan ere, eta Udalbatzak ez du inolako erantzukizunik izango horiek ez betetzeagatik.

9) Kontratistak, hala eskatuz gero, gizarte-aseguruen kopia eman beharko dio Tokiko Entitateei, bai eta enpresak Ikaztegietako udalerriari kontratatutako zerbitzua emateko esleituta dituen langileen lan-betebeharrak, aurreikuspen-betebeharrak eta abar betetzen dituela egiaztatzen duen edozein egiaztagiri ere. Era berean, kontratuaren xede diren lanez arduratzen diren langileekin duen lan-kontratuaren kopia aurkezteko eskatu ahal izango zaio kontratistari.

10) Azpikontratazioaren kasuan, enpresa azpikontratistak klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratatutako enpresetako langileen afiliazioa eta gizarte-segurantzako alta egiaztatuko ditu enpresa kontratistak, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

11) Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea klausula horren ondoriozko ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, gehienez ere.Ordaindutako zenbatekoak guztiz berreskuratzea.

12). Kontratua burutzeko baldintza bereziak

Betebehar horiek kontratuaren funtsezkotzat jotzen dira, eta horiek ez betetzea larritzat joko da, eta SPKLren 192. artikuluko zigorrak ezartzea, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako kontratua suntsiaraztea eta SPKLren 71.2.c) artikuluko arau-hauste larritzat tipifikatzea.

25. Kontratua exekutatzeko beste baldintza bereziak

Kontratu hau exekutatzeko ondorengo exekuzio baldintza bereziak eskatuko dira:

Gizarte arlokoak:
Enpresa esleipendunak lan arloko sexu jazarpen kasuen aurrean protokolo bat izango du.

Kontratistak bermatuko du, kontratua gauzatzean, dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak sexismorik gabe erabiltzen direla, emakumeen aurkako bereizkeria eta estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihesten dela eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dela.

Enpresa kontratistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralean ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

50 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu beharko du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat duela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukiarekin.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegurako sarbidean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lan-kalitatean eta -egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Enpresak eskaintzen duen edozein informazio (memoriak, etab.), pertsonei buruzkoa bada, sexuaren arabera bereizita egongo da.

Betebehar hori ez betetzea kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarriko da (BEZ-a kanpo).

Hizkuntza arlokoak

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasunaren araubidearen mende dago. Araubide hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta lege hori garatzen duen araudiak arautzen dute, besteak beste, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak.

Kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasunaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira, bai ahozko harremanetarako bai idatzietarako:

- Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- Halaber, Ikaztegietako Udaleko hizkuntza irizpideak errespetatuko dira.

Udalekoak:
Horretarako guztirako, edo Ikaztegietako Udalak egoki ikusten duen helburuetarako, hezitzaileak udal formakuntza jasotzeko aukera aztertuko da kasuan kasu. Enpresa esleipendunaren eta udaleko ordezkarien arteko koordinazio bidez erabakiko da.

Datuen babesa:
Kontratu hau gauzatzean, sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzen dizkiotenean, exekuzio-baldintza berezia izango da kontratistak datuak babesteari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete behar izatea, eta kontratistari ohartaraziko zaio betebehar hori kontratu-betebehar funtsezkoa dela, SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutakoaren arabera.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie.

Betebehar horiek kontratuaren funtsezkotzat jotzen dira, eta horiek ez betetzea larritzat joko da, eta SPKLren 192. artikuluko zigorrak ezartzea, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako kontratua suntsiaraztea eta SPKLren 71.2.c) artikuluko arau-hauste larritzat tipifikatzea.

26. Esleipendunaren erantzukizuna kontratua burutzerakoan beste batzuei eragindako kalteengatik

Kontratista izango da kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz edo bere beharrak bete ez izanaren ondorioz sor litezkeen kalte-galeren erantzule, SPKLaren 196. artikuluak xedatzen duenaren arabera.

Horretarako, esleitu aurretiko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, hamar laneguneko epean, aseguru poliza baten kopia ekarriko du, 300.000,00 euroko gutxieneko berme muga duena, eta baita hura ordaindu izanaren egiaztagiria ere. Aseguru poliza horrek, bere gain hartuko ditu kontratuari berari dagozkion arriskuak, bereziki, izan dezakeen erantzukizun zibilarena beste batzuei sortutako kalteengatik. Kalte horiek, esleitutako enpresaren langilegoak eragindikoak izan daitezke, langile eta agindupeko finkoek, zein aldi baterakoek; erabilitako makinariak edo ekipoak eragindakoak; eta baita, esleipenaren xede den zerbitzua ematean egindako lanen ondorioz sor daitezkeenak ere.

27. Kontratua aldatzea.

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean, 206. artikuluan ezarritako baldintzapean.

Kontratuari ezin izango zaio funtsezko aldaketarik aplikatu (SPKL, 205).

Hala ere, aldaketa hori kontratistentzat bakarrik izango da nahitaezkoa baldin eta kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gainditzen ez duen zenbatekoa aldatzea badakar. Gainerako kasuetan, kontratistaren aldez aurreko adostasuna beharko da. Kontratista ados ez badago, kontratua suntsiaraziko da (SPKL, 206. eta 211.1 artikuluak).

28. Zerbitzuak hartzea eta berme-epea

1. Hilabete bateko berme-epea jarriko da, kontratu administratiboa amaitu ondoren.

2. Epe hori amaitzen denean, esleipendunari udal honetan sartu zuen behin-betiko bermea itzuliko zaio, non eta esleipendunak ez badio Mankomunitate honi, Udal honi edo eragina jasandako hirugarrenei kalte-galerarik ordaindu behar izango kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortutako kalte edo galerengatik.

3. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratistak emandako prestazioa hura burutzeko eta betetzeko finkatutako preskripzioei lotzen zaion. Horretarako, indarrean dagoen arautegiak xedatzen dituen eskumenak bere esku izango ditu.

4. Kontratuak dirauen bitartean egin diren lanek akatsak dituztela egiaztatuko balitz, kontrataziorako organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzendu ditzala erreklamatzeko.

29. Kontratistari ezarri beharreko zigorrak baldintzak betetzen ez baditu.

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du, baina horiek guztiek batera ezingo dute kontratuaren %50 gainditu.

Kasu guztietan, Administrazioak ezarritako zigorrak ez baditu estaltzen hari sortutako kalteak, kontratistari dagokion kalte ordaina eskatuko dio, kalte-galerengatik.

Zigorrak ezarriko dira SPKLren 194. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

30. Kontratua amaitzeko arrazoiak

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluan aurreikusitakoak izango dira:

- Kontratistaren heriotza edo ezintasuna.

- Sozietate kontratistaren nortasun juridikoa amaitzea.
- Kontratistaren konkurtsoa edo kaudimengabezia deklaratzea.
- Alderdien arteko adostasuna.
- Justifikaziorik gabeko atzerapenak epeak betetzean.
- Administrazioak ordaintzeko atzerapenak.
- Kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.
- Prestazioa itundutakoaren arabera gauzatzeko ezintasuna.
- Kontratua gauzatzen den bitartean soldatak ez ordaintzea.

Bai eta lege horren 313. artikuluan zerbitzu-kontratuetarako bereziki jasotakoak ere:

- Zerbitzua ematen hasi aurretik atzera egitea.
- Kontratazio-organoari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiagorako etetea.
- Prestazioa hasi ondoren atzera egitea.
- Kontratua zortzi hilabete baino gehiagoz etetea.
- Kontratu osagarriak suntsiaraztea, kontratu nagusia suntsiarazten bada.

Kontratua suntsiarazteko berariazko arrazoi gisa ezartzen da administrazioarekin kontratatzeko baldintzak (kontratistaren gaitasun-eskakizunak eta kontratatzeko debeku-kausaren batean sartuta ez egotea) gerora galtzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera, bai eta kaudimena galtzea eta kontratu honetako funtsezko baldintzak eta lan-baldintzak ez betetzea ere.

31. Kontratua uztea eta azpikontratazioa.

Kontratistak berak egin beharko ditu lanak, eta ezin izango dio utzi beste pertsona bati kontratu guztia edo horren zati bat Ikaztegietako Udalak aldez aurretik eta espresuki baimendu gabe, eta SPKLaren 214 artikuluak xedatutako baldintzak betez.
Azpikontratazioari dagokionez, kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, beti ere azpikontratazio horrek ez dakarrenean lehiaren murrizketa eraginkorrik.
Dena den, azpikontratazioa aurreikusten bada, lizitatzaileek kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Horretarako, esleipendunak kontratua esleitu ondoren eta kontratua gauzatu aurretik, idatziz jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa, prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratista nor izango den zehaztuz, eta, era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du SPKLaren 215 artikuluan adierazitakoari jarraiki.

32. Udalaren eskubideak

1. Ikaztegietako Udalari dagokio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak konpontzea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan zehaztutako baldintzak eta ondorioak betez.

2. Horretarako hartzen diren akordioek administrazio-bidea agortuko dute eta berehala bete beharrekoak izango dira.

3. Era berean, Ikaztegietako Udalari dagokio itundutako zerbitzu-emakidaren kontrola, alta eta jarraipena egitea. Horretarako, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari kontratu hori burutzeari dagozkion txostenak aurkez ditzala.

4. Era berean, kontratua era egokian gauzatu dadin, dagokion sailaren bidez Udalak ondorengo funtzioak bere gain hartuko ditu:
   - Kontratua betetzeko eraren jarraipena eta ikuskapena egitea, baita horri buruzko jarraibideak finkatzearena ere.
   - Egin beharreko lanak bide onetik joan daitezen ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak egikaritzea.
   - Kontratua betetzeari dagokionean zuzendaritza eta kontroleko ahalmenak egikaritzea.

33. Datu pertsonalen babesa

1. Kontratuaren kudeaketari buruzko datu pertsonalak babestea:
   Bi alderdiei jakinarazi zaie kontratu honetako ordezkarien edo haiekin harremanetan jartzeko pertsonen datuak, edo kontratu hau gauzatzeko haien artean emandakoak, bakoitzak datu pertsonalak tratatuko dituela, kontratu-harremana kudeatzeko.

2. Informazioa ustekabean eskuratzeko konfidentzialtasun-betebeharra:
   Esleipendunak ustekabean eskuratzen badu inplikatutako administrazioen informazioa, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duena, informazio horren gaineko konfidentzialtasun osoa gorde beharko du, eta gertatutakoaren berri eman beharko dio kontratazio-organoari.

   Esleipendunak modu frogagarrian eman beharko die langileei betebehar horren berri.

3 Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

4. Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko gerta daitezkeen izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuen erabilpena izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duen Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta gaiari buruzko gainontzeko araudiak xedatzen dutenari jarraiki gauzatuko du.

IV. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

34. Kontratuaren izaera eta araubide juridikoa

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

36. Jurisdikzio eskuduna

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.